



❖ SANTA ZEZILIA  
**Santa Zeziliako kontzertuak ostiral eta larunbatean**

Santa Zezilia egunaren bueltan, Hernaniko abesbatzek bi kontzertu eskainiko dituzte. Ostiralean Goiz Eguzkiko abesbatzak kantatuko du, 19:00etan, Goiz Eguzkin bertan. Zazpi kanta kantatuko dituzte, Javier Zubimendiren zuzendaritzapean: Txakolin, Volare, Zorongo, Maitia Nun Zira, Un viejo amor, Puer natus, eta Signum.

Kantuz abesbatzak larunbatean kantatuko du, Sandiusterrin, 19:00etatik aurrera. Hernani eta inguruko txistulariak, metal boskotea eta akordeoilariak ere izango dira kontzertuan. ||

❖ ELIZA - Hezkuntza-Astea

## «Nahi dugu, jendea jabetzea, zertara eta zergatik etortzen den mezetara»

Hezkuntza-Astearen barruan, Liturgia eta Kristologiari buruzko azalpenak emango dituzte gaur eta ostiralean Juan Jose Arregi eta Fernando Garcia Vianak. «Jakinmina duten kristauei eta izan nahi dutenei zuzendua da, hau da, desoxidatzeko gogoia dutenentzat», diote. 20:00etan Atetxikietan.

JUAN Jose Arregi eta Fernando Garcia Viana Liturgia eta Kristologiari buruzko azalpenak emango dituzte asteazken eta ostiralean. Orain dela 20 bat urtetik antolatzen den Hezkuntza-Astearen barruan izango da. Eurek azaldu bezala, jakinmina duten kristauei edo izan nahi dutenei zuzendua dago, «hau da, desoxidatzeko gogoia dutenei zuzendua, nolabait esateko». Helburua da jendea kontzientzia-tzea. «Jakin dezatela nahi dugu, zertara eta zergatik etortzen diren mezetara; zergatik ospatzen dituzten elizkizunak. Eta Jesus ezagutu dezatela, bera baita kristauen Fedearen zentrua».

**Liturgia: Elizarenak diren ospakizun guztiak**

Liturgiari buruz Arregi ari-tuko da asteazkenean. Azal-dutakoaren arabera, Liturgia osatzen dute Elizarenak diren ospakizun guztiak, eta bera saiatzen da azalpen bat ematen ospakizun guzti horien inguruan. «Oinarrizko azalpenak dira».

**Kristologian, Jesus ezagutzen**

Ostiralean berriz, Kristologia landuko du Garcia Vianak. «Kristologian Jesusen irudia aurkeztea da bilatzen dena; Kristo azaltzeko modu bat. Jesus ezagutzea garrantzitsua da, bera baita kristautasunaren Fedearen zentrua. Lantzen dugu nola bizi izan zen, zein bizimodu mota izan zuen, nola egin ziren



Juan Jose Arregi Hernaniko apaiza da eta Fernando Garcia Viana Donostiakoa, Usandizaga Institutuan irakaslea da.

**Arregi:** «Liturgia osatzen dute Elizarenak diren ospakizun guztiak; horren inguruko oinarrizko azalpenak ematen ditut».

**Garcia Viana:** «Kristologian Jesusen irudia aurkeztea da bilatzen dena; Kristo azaltzeko modu bat. Lantzen dugu nola bizi izan zen, nola egin ziren ebanjelioak...»

ebanjelioak, ebanjelista ba-koitzak zer bilatzen zuen...».

Kristautasuna sortu zene-tik XXI mende pasa direla kontuan dute eta azalpenak mende guzti hauetan izanda-

ko aldaketetara egokitzen ahalegintzen dira. «Kristautasuna eta Jesus ulertzeko modu aldatu egin da eta gaur egungo kulturaren nola ikusten den aztertzen dugu».

**Maiatzera arte, hilabete behin**

Hezkuntza-Astea urrian hasi zen eta maiatzera arte luzatuko da. Hilabete azken asteazken eta ostiralean emango dute Arregi eta Garcia Vianak Liturgia eta Kristologia; nahi duenak du hitzaldietara joateko aukera. 20:00etan, Atetxikietan da hitzordua. Oraingoan 50 bat lagun biltzen dituzte bien artean. Bertan, bi gaien inguruko materiala banatzen dute, hala nola, fotokopiak, norberak karpetaxo bat sortzeko moduan. ||

❖ ERAKUSKETA

**20 artista, Biterin**

20 artista, edo 20 artisten lanak, Biterin daude erakusketan. Hernaniko Errapia Arte taldeko kideak dira gehienak, eta erakusketa jarri dute, ostirala arte. Pintura, eskultura, diseinua, argazkia, marrazkia, egur-taila, pitxi... nekez aurkitu daiteke halako barietaterik erakusketa batean. Lehengo aldia da, Hernaniko Errapia taldeak Hernanin erakusketa jartzen duela. Ostiral arte dago ikusgai. ||

❖ ERAKUSKETA

**Noelia Crujeirasen pinturak, Antziola kafetegian**

Antziola kafetegian pintura erakusketa jarri du Noelia Crujeiras pintoreak, eta ikus-teko moduan izango da, abenduaren bukaera arte. ||

◆ TXANTXANGORRI

**Ehiza Txapelketa**

Txantxangorri elkarteko ehiza txapelketa abenduaren 12an eta 19an jokatu da. Apuntatzeko azken eguna: abenduak 10. ||

**leiholux**  
LEIHOAK, PERTSIANAK ETA ITXITURAK.  
"REMOVE" PLANA  
Zure etxeko leihoak berritzeko DIRU LAGUNTZAK.  
Ez utzi aukera pasatzen !!  
www.leiholux.net  
943 29 09 09  
ZATOZ !!  
Pol. Belartza Gurutzegi, 15 - Pab. A-3 20018 Donostia

**Allianz** (li)  
ASEGURUAK  
bizitza -  
istripuak -  
ibilgailuak -  
etxeak -  
komertzioak -  
enpresak -  
ardura zibila -  
finantz aseguruak -  
inbertsioak -  
agustin ezponda irizar agentzia  
Nagusia, 13  
Telf.: 943 55 73 26  
Faxa: 943 33 57 71

**OPEL**  
Auto Hernani  
HERNANIN, ZURE BETIKO TAILERRA.  
KONPONKETAK: MEKANIKA ETA KARROZERIA  
TXAPAN ETA PINTURAN: GURE ESKURIK ONENAK, BETI PREST !!...ZURE AUTOAK MEREZI DUELAKO.  
FILTRO ETA OLIO 59€-TIK ALDAKETA AURRERA !!  
GURPILEN ALDAKETA  
AUTO-SALMENTA: BERRIAK eta 2.ESKUKOAK  
JAUREGI, 76 (GALARRETA ONDOAN)  
Tel.: 943.55.77.25  
ZATOZ

**TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauz:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Ateri eutsiko dio gaur ordu gehienetan, tarteka tantaren bat botako duen arren. Tenperaturak berdinean ibiliko dira. Min.6° / Max.12°

**BIHAR** Bihar negu giroa aurreratuko du. Fronte hotza iritsiko da, eta eurria eta hotza ekarriko ditu. Iparrek giroa hoztu egingo du, eta 1.000 metrora elurra egin lezake. Min.4° / Max.10° (euskalmet)

## ❖ HITZALDIA GAUR - 'Sahara: zapal dutako herri baten garrasia'



Saharako Aaiun kanpamenduko argazkia, Marokoren erasoia jasan eta gero.

# Zer pasatu da Saharan?

Jalil Said sahararrak hitzaldia emango du gaur Biterin, 19:30etatik aurrera: 'Sahara: zapal dutako herri baten garrasia'.

MAROKOK erasotu zuen joan den astean Saharako Aaiun kanpamendua. Eraso horrek argi gorriak piztu ditu Saharako auzia konpontzeko eskatzen ari diren talde guztien artean. Asko izan dira eraso gaitzetsi dutenak, eta gogorarazi egin dute, Saharan bizi duten egoera, eta Marokoko Gobernuak (eta Espainiakoak) azaldu duen jarrera.

Saharako Aaiun kanpamendua erasotu zuen joan den astean Marokoko ejerzitoak. Eraso horrek argi gorriak piztu ditu, Saharako auzia konpontzeko eskatzen duten taldeen artean.

Zer gertatu da Saharan? Zer gertatzen ari da Saharako kanpamenduetan? Horri buruzko hitzaldia emango du gaur, Jalil Said sahararrak, Biterin, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Hernaniko Kooperazio taldeak antolatuta du hitzaldia, Sahararen Aldeko Hernaniko Taldearekin batera. Izenburua: *Sahara: zapal dutako herri baten garrasia.* ❖



**Festa ederra ibili zuten, Ereñotzuko eskolan ikasitako emakumeek.** Urteroko ohitura bihurtua dute. Ereñotzuko Eskola Zaharrean ibilitako emakumeek bazkaria egiten dute urtero, Irubidietan. Aurten ere hala zuten; joan den astean, azaroaren 13an. Irubidietan zuten bazkaria, eta 25 lagun bildu ziren bertan. Kontu zaharrak berri, eta kontu berriak argitu... egun pasa ederra egin zuten. ❖

## ❖ EREÑOTZU

### Garbiñe Aizpuruk hitz egingo du gaur, alimentazio osasungarriari buruz

Ereñotzun hitzaldia dute gaur, udazkenean antolatzen dituzten ekitaldietan bat gehiago. Gai berezia dute gaurkoan: alimentazioa edo elikadurari buruz ariko dira. Garbiñe Aizpuruk azalduko du, zein den elikadura egokia, orekatua... osasungarria. 19:30etan izango da hitzaldia, Kultur Etxean. Udazken Kulturala bukatzeko azkenaurreko ekitaldia da gaurkoa. Azkena, abenduaren 10ean dute: bertso zaharrak izango dituzte: Pedro Mari Otaño bertsolariaren hainbat pasarte eta bertso, Amuriza eta Peñagarikanoren eskutik. ❖

### ◆ ERREMONTEA - Azysa Binakako Txapelketa Urtasun eta San Miguel finalerdietan dira, nahiz eta atzo galdu

Ezkurrak eta Olazarrek 40-39 irabazi zieten atzo Urtasun eta San Migueli A taldeko hirugarren partidua, baina emaitza nahikoa ez, eta Binakako Txapelketatik kanpo geratu dira. Urtasunek eta San Miguelek berriz, finalerdietako pasea lortu dute. A taldeko aurrenekoak dira eta B taldeko bigarrenen aurka jokatu dute. Larunbatean erabakiko da Zeberio II-Ion edo Uterga-Urrutia izango diren. ❖

## ❖ AEK

### Korrika Laguntzaile izan nahi? 50 xentimo hilean

AEK euskaltegiak datorren urtean egingo du Korrika, 17garrena, bi urtean behin egiten duena. Korrika egin ahal izateko, eta AEKko proiektua aurrera atera ahal izateko, laguntzaile beharra dauka AEKk, eta modu asko daude horretarako. Bi azpimarratu dituzte, Korrika aurreko garai honetan. Bat, Korrika Laguntzaile egitea: hileroko 50 xentimo emanda, urtean 6 euro, bi urtean 12 euro. Eta bi, Korrikako materiala erostea: Hernanin, Larramendi 11, behea. Informazio gehiago: 943 55 78 01. ❖

## ❖ GALDUTAKOAK

### Hispanier arrazako txakur zuri-gorria galdu da, Ereñotzu aldean

Hispanier arrazako txakurra galdu da. Zuri-gorria da eta 6 hilabete dauzka. Txipa ere badauka. Ereñotzu aldean galdu zen. Aurkituz gero, deitu honako telefonora: 666 477 450. ❖

## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

- Loft bat alokagai Hernanin. 600€. Deitu: 652 70 72 15
- Motoa salgai. T-MAX black max, oso ondo zaindua (5500€). Deitu: 630 432 781.
- Pisua alokagai: Antziolan (residentziala), 2 logela, saloi, sukalde-komedorra, komuna (kalefakzioa) eta garaje itxia. Hutsik. 800€ (abala). Deitu: 600 60 97 54
- Ingelesko eskola partikularrak ematen ditugu. Ingeles filologoa eta tituludun natiboa. Maila guztiak, Business English, elkarrizketa... Deitu: 652 704 995 / 639 371 824
- Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi handia, sukaldea. Behean soziedadea eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kotxe). Prezio negoziagarria eta erreztasunak ordainketan. Deitu: 629 682 827.
- Kotxea salgai, Peugeot 206a. 9 urte ditu (2.000 euro). Deitu 943 55 04 79.
- Altzariak salgai: 2 ohe (90cm), mesilla, sinfonier eta armairua / 2 butaka, 2 armairu eta "tresillua" (Haritza, zutikoa). Merke eta egoera onean (1500€). Deitu: 649 006 061.
- Audi TT FSI salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajejan. 26.500€. Deitu: 658 058 330.
- Pisu polita salgai Karabalen. 2 logela, dena kanpora, guztiz berritua (246.000€). Deitu: 658 712 923.
- Pisua salgai erdialdean eta toki lasaiean. 2 gela dauzka eta denak kanpoaldera ematen du. Prezioa: 32.000.000pzt. Deitu: 619 813 357
- Duplex-a salgai Lizeaga kalean, oso egoera onean, argitsua, 120m2, 3 logela, 2 komun, trasteroa. 390.000€ Deitu: 609 823 472
- ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Enara Goikoetxea. Terapija energetikoak, Kristaloterapija, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)
- YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.
- Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
- Itzi Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapija... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)